

MEZAREN EGUNEROKOA

HASIERAKO OHIKUNEAK

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Amen.

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia
eta Jainko Aitaren maitasuna
eta Espiritu santuaren batasuna
izan bitez zuekin.

Eta zure espirituarekin.

DAMU-OTOITZA

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitzen.

**Aitortzen diot Jainko guztiz ahaltuari,
eta zuei ere bai, ene senideoi,
bekatu egin dudala
gogapen, hitz eta egitez,
eta eginbeharrak ez eginez;
bai, bekatari naiz.
Horregatik eskatzen diet Andre Maria beti Birjinari,
aingeru eta santu guztiei
eta zuei ere bai, ene senideoi,
otoitz egin diezaiozuela nire alde Jainko gure Jaunari.**

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltua
eta, gure bekatuak barkaturik,
eraman gaitzala betiko bizira.

Amen.

Edota:

V/. Erruki, Jauna.	V/. Kyrie, eléison.
R/. Erruki, Jauna.	R/. Kyrie, eléison.
V/. Kristo, erruki.	V/. Christe, eléison.
R/. Kristo, erruki.	R/. Christe, eléison.
V/. Erruki, Jauna.	V/. Kyrie, eléison.
R/. Erruki, Jauna.	R/. Kyrie, eléison.

Edota:

Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.

Erruki, Jauna.

Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

Kristo, erruki.

Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: erruki, Jauna.

Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua

eta, gure bekatuak barkaturik,

eraman gaitzala betiko bizitzara.

Amen.

AINTZA ZERUETAN

Aintza zeruetan Jainkoari

eta bakea lurrean Haren gogoko gizakiei.

Hain handi eta eder zaitugulako,

gora Zu,

bedeinkatua Zu,

gorespen Zuri,

ahuspez agur,

eskerrak Zuri.

Jainko Jauna, zeruko Errege,

Jainko Aita guztialduna.

Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo,

Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme:

Zuk kentzen duzu munduko bekatua; erruki, Jauna;

Zuk kentzen duzu munduko bekatua; entzun gure deia.

Aitaren eskuinaldean jarririk zaude Zu; erruki, Jauna.

Zu bakarrik Santua,

Zu bakarrik Jauna,

Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo,

Espiritu Santuarekin

Jainko Aitaren argitan.

Amen.

MEZAKO OTOITZA

...

Amen.**HITZAREN LITURGIA**

I. IRAKURGAIA

Jaunak esana.

Eskerrak Zuri, Jauna.

ERANTZUN SALMOA

II. IRAKURGAIA

Jaunak esana.

Eskerrak Zuri, Jauna.

ALELUIA

EBANJELIOA

Jauna zuekin.

Eta zure espirituarekin.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San I. [r]en liburutik.

Aintza Zuri, Jauna.

Jaunak esana.

Eskerrak Zuri, Jauna.

HOMILIA

FEDE AITORMENA

Sinesten dut Jainko Aita ahalguztidun
zeru-lurren egilea.

Sinesten dut Haren Seme bakar

Jesu Kristo gure Jauna,

Espiritu Santuaren egitez sortu

eta Andre Maria Birjinagandik jaio zena;

Pontzio Pilatoren menpean nekaldua;

gurutzean iltzatua,
 hila eta hobiratua izan zena;
 infernuetara jaitsi
 eta hirugarren egunean
 hilen artetik piztu zena;
 zeruetara igo
 eta Jainko Aita ahalguztidunaren
 eskuinaldean jarririk dagoena;
 handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.
 Sinesten dut Espiritu Santua,
 Eliza santu katolikoa
 santuen elkartasuna,
 bekatuen barkamena,
 haragiaren piztuera eta betiko bizitza.
 Amen.

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

EUKARISTIAREN LITURGIA

Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa;
 zure esku zabaletik hartu dugu
 orain ekarri dizugun ogi hau,
 lurraren indarrak eta gizakiaren lanak sortua:
 hauxe egingo zaigu biziaren ogi.

Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa;
 zure esku zabaletik hartu dugu
 orain ekarri dizugun ardo hau,
 mahatsondoaren indarrak eta gizakiaren lanak sortua:
 hauxe egingo zaigu betiko zorionaren edari.

Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Senideok,
 egin dezagun otoitz guztiok batean,
 Eliza osoaren oparia Jainkoari eskaintzekoan.
Jainkoa goresteko eta gizakia salbatzeko.

OPARIGAIEN GAINKO OTOITZA

...

Amen.

PREFAZIOA

ABENDUALDIKO I. PREFAZIOA

V/. Jauna zuekin.

R/. **Eta zure espirituarekin.**

V/. Gora bihotzak.

R/. **Jaunagan dauzkagu.**

V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

R/. **Egoki da eta zuzen.**

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiereko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bera behin apalki etorri zen gizon egina,
betidaniko zure asmoa betetzera
eta guri zerurako bidea zabaltzera.
Berriz etorriko da aintzaz beterik,
orduana guri bete-betea ematera
orain fedez itxaroten dugun saria.

Horregatik, aingeru eta goiaingeruekin
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten diogu:

**Santu, Santu, Santua,
diren guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik dauzka zure distirak.
Hosanna zeru goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru goienetan!**

ABENDUALDIKO II. PREFAZIOA

V/. Jauna zuekin.
 R/. **Eta zure espirituarekin.**
 V/. Gora bihotzak.
 R/. **Jaunagan dauzkagu.**
 V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
 R/. **Egoki da eta zuzen.**

Egoki da, bai, eta zuzen,
 bidezko eta salbagarri,
 nonahi eta beti guk Zuri eskerrak ematea,
 Jauna, Aita guztiz santu,
 Jainko ahalguztidun betiereko horri,
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bera dugu profeta guztiak antzinatek adierazia,
 Ama Birjinak maitasun samurrez sabelean ekarria,
 Joanek etortzekoa zela esana,
 baita etorria zela erakutsia ere.
 Berari esker, pozez ari gara
 eguberri-misteriorako prestatzen,
 otoitzean erne aurki gaitzan
 eta beraren gorespenetan alai.

Horregatik, aingeru eta goiaingeruekin
 eta zeruko talde guztiakin
 zure aintzari gorazarre hau
 beti eta beti [esaten] abesten diogu:

Santu, Santu, Santua...

EGUBERRIALDIKO I. PREFAZIOA

V/. Jauna zuekin.
 R/. **Eta zure espirituarekin.**
 V/. Gora bihotzak.
 R/. **Jaunagan dauzkagu.**
 V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
 R/. **Egoki da eta zuzen.**

Egoki da, bai, eta zuzen,
 bidezko eta salbagarri,
 nonahi eta beti guk Zuri eskerrak ematea,

Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiereko horri.

Gizon egin den Hitzaren misterioan
zure aintzaren argi berria sortu da gure bihotzetan.
Eta orain Jainkoa agerian ezagutzen dugularik,
berak garamatza ageri ez direnak maitatzera.

Horregatik, aingeru eta goiaingeruekin
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten diogu:

Santu, Santu, Santua...

JAUNAREN AGERKUNDEKO PREFAZIOA

V/. Jauna zuekin.

R/. **Eta zure espirituarekin.**

V/. Gora bihotzak.

R/. **Jaunagan dauzkagu.**

V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

R/. **Egoki da eta zuzen.**

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiereko horri.

Kristogan dagoen gure salbamenaren misterioa
gaur agertu duzu,
herrialde guztiei argi egiteko;
zure Semea gure izate hilkorrean agerturik,
berriztatu egin gaituzu
haren jainkozko argi hilezkorraz.

Horregatik, aingeru eta goiaingeruekin
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten diogu:

Santu, Santu, Santua...

GARIZUMAKO I. PREFAZIOA

V/. Jauna zuekin.

R/. **Eta zure espirituarekin.**

V/. Gora bihotzak.

R/. **Jaunagan dauzkagu.**

V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

R/. **Egoki da eta zuzen.**

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiereko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Zure fededunak, arimak garbiturik,
Zuri esker, pozez doaz urtero pazko-misterioetara:
otoitz gehiago eginez eta elkar maiteago izanez,
bizi berria eman dieten sakramentuak hartuta,
Jainkoaren seme-alaben grazia betera hel daitezen.

Horregatik, aingeru eta goiaingeruekin
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten diogu:

Santu, Santu, Santua...

JAUNAREN NEKALDIKO I. PREFAZIOA

V/. Jauna zuekin.

R/. **Eta zure espirituarekin.**

V/. Gora bihotzak.

R/. **Jaunagan dauzkagu.**

V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

R/. **Egoki da eta zuzen.**

Egoki da, bai, eta zuzen,

bidezko eta salbagarri,
 nonahi eta beti guk Zuri eskerrak ematea,
 Jauna, Aita guztiz santu,
 Jainko ahalguztidun betiereko horri.

Zure Semearen nekaldi salbagarriari esker,
 mundu guztiak aitor dezake zure handitasuna;
 izan ere, gurutzearen indarrean harrigarri agertzen dira,
 bai munduaren epaia,
 bai Gurutziltzatuaren nagusitasuna.

Horregatik, guk ere, aingeru eta santu guztiekin batean,
 goresten zaitugu, Jauna,
 poz betean [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua...

I. PAZKO PREFAZIOA

V/. Jauna zuekin.

R/. **Eta zure espirituarekin.**

V/. Gora bihotzak.

R/. **Jaunagan dauzkagu.**

V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

R/. **Egoki da eta zuzen.**

Egoki da, bai, eta zuzen,
 bidezko eta salbagarri,
 Zu, Jaun hori, beti gorestea,
 baina poz handiagoz eta bereziki
 Kristo, gure Pazkoa,
 hila eta eskainia izan den [gau / egun] aldi honetan.

Bera da munduko bekatua kendu duen egiazko Bildotsa,
 bere heriotzaz gure heriotza ezereztu
 eta bere piztueraz gure bizia berri duena.

Horregatik, pazko-pozez gainezka daude
 gizon-emakume guztiak mundu zabalean.
 Zeruko indar eta aingeru guztiek ere
 horregatik dute beti
 zure aintzaren gorespina kantatzen:

Santu, Santu, Santua...

URTEAN ZEHARREKO IGANDEETAKO I. PREFAZIOA

V/. Jauna zuekin.

R/. **Eta zure espirituarekin.**

V/. Gora bihotzak.

R/. **Jaunagan dauzkagu.**

V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

R/. **Egoki da eta zuzen.**

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiereko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Miragarria da berak pazko-misterioaz egin digun hau:
bekatuaren eta heriotzaren menpean bizi ginenok
bere ospe ederrera deitu gaitu
eta orain hau dugu izena:
jatorri hautatu, errege eta apaiz,
nazio santu eta Zeuretzat eskuratutako herri;
horrela, ilunpetatik zeure argi zoragarrira deitu gaituzunok
zure egintza harrigarriak nonahi zabal ditzagun.

Horregatik, aingeru eta goiaingeruekin
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten diogu:

Santu, Santu, Santua...

ANDRE MARIAREN I. PREFAZIOA

V/. Jauna zuekin.

R/. **Eta zure espirituarekin.**

V/. Gora bihotzak.

R/. **Jaunagan dauzkagu.**

V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

R/. **Egoki da eta zuzen.**

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiereko horri.

Eta Zu bedeinkatzea eta gorestea

Maria beti Birjina dohatsuaren ***

[oroipena, jaieguna, festaburua, Jaiotza, amatasuna...]

ospatzen dugun egun honetan.

Berak sortu du, Espiritu Santuaren egitez, zure Seme bakarra,

eta, birjintasunaren ederra galdu gabe,

berak eman dio munduari betiko argia,

Jesu Kristo gure Jauna.

Honen bitartez, aingeruek zure handitasuna goresten dute,

espiritu dohatsuek zure ospea adoratzen,

goiko indarrek Zuri ahuspez agur egiten,

poztasun berak baititu zerutar guztiak elkartzen.

Onar ezazu, Jauna,

haien gorespenekin bat egin ditzagula guk ere

geure kantu-hotsak:

Santu, Santu, Santua...

II. EUKARISTI OTOITZA

V/. Jauna zuekin.

R/. Eta zure espirituarekin.

V/. Gora bihotzak.

R/. Jaunagan dauzkagu.

V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri, Aita guztiz santu horri,
eskerrak ematea,

Jesu Kristo zure Seme maitearen bitartez.

Kristo da, izan ere, zure Hitza,
haren bidez egin dituzu diren guztiak;
hura bidali diguzu salbatzaile eta erosle,
Espiritu Santuaren egitez gizon egina
eta Birjinagandik jaioa.

Berak, zure nahia betetzeko
eta Zuretzat herri santua irabazteko,
gurutzean besoak zabaldu zituen
eta, heriotza ezereztuz, nagusi agertu zuen piztuera.

Horregatik, aingeru eta santu guztiekin,
guk ere zure ospea eta aintza goستن دugu,
bihotz batez [esanez] kantari:

**Santu, Santu, Santua,
diren guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik dauzka zure distirak.
Hosanna zeru goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru goienetan!**

Santu zara, bai, Jauna,
eta santutasun guztiaren iturri;
santu egizkizu, bada, ogi eta ardo hauek,
zeure Espiritua isuriz,
Jesukristo gure jaunaren gorputz eta + odol
guretzat egin daitezen.

Berak, saldu zutenean
eta bere gogoz gurutzera zihoala,
ogia hartu eta, eskerrak emanez,
zatitu zuen
eta bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NIRE GORPUTZA DA ETA,
ZUENTZAT EMANGO DENA.**

Afal ondoan, berdin, kaliza harturik,
berriz ere eskerrak emanez,

bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NIRE ODOLAREN KALIZA DA ETA,
ITUN BERRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT
BEKATUAK BARKATZEKO ISURIKO DENA.**

Egizue hau nire oroigarri.

Hau da sinesmenaren misterioa.

**Hil eta piztu zarela, Jauna,
Zu berriz etorri arte,
hau dugu, hau, berri ona!**

Horregatik, Jauna,
zure Semearen heriotzea eta biztuera gogoratu,
biziaren ogia eta salbamenaren kaliza
eskaintzen dizkizugu,
Zuri eskerrak emanez,
aldaren zure zerbitzari onartu gaituzulako.
Eta apalik eskatzen dizugu,
Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok
Espiritu Santuak bat egin gaitzala.

Gogoan izan, Jauna,
mundu guztian zabaldurik dagoen zeure Eliza:
eramazu maitasun osora,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Artzainarekin
eta eliz gizon guztiekin batean.

Gogoan izan, Jauna,
bizteko itxaropenean joan diren gure senideak
eta hildako guztiak:
har itzazu zeure aurpegiaren argitan.

Erruki zakizkigu, arren,
guk guztiok betiko bizitza iritsi dezagun,
Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin,
apostolu santuekin
eta, gizaldi guztietan,

zeure adiskide izan diren santuekin:
haiekin batean gorets zaitzagun.

Honen bitartez, Honekin eta Honengan,
Zuri, Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.

Amen.

III. EUKARISTI OTOITZA

Santu zara, bai, Jauna,
eta diren guztiek ematen dizute
behar den gorespina.
Zeure Seme Jesukristo gure Jaunaren bitartez
eta Espiritu Santuaren indarrez,
Zeuk bizierazten dituzu guztiak, eta santutzen,
eta Zeu ari zara beti eta beti zeure herria biltzen,
eguzki alde batetik besteraino
opari garbia eskain dakizun.

Apalik, beraz, Jauna, eskatzen dizugu:
santu egin ditzazula,
zeure Espirituaren indarrez,
oparitarako ekarri ditugun ogi eta ardo hauek,
zeure Seme Jesukristo gure Jaunaren
gorputz eta + odol izan daitezen,
misterio hauek
Berak esanda egiten ditugunez gero.

Berak, saldua izan zen gau hartan,
ogia hartu eta, Zuri eskerrak emanez,
bedeinkatu zuen,
zatitu eta bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTAZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NIRE GORPUTZA DA ETA,
ZUENTZAT EMANGO DENA.**

Afal ondoan, berdin,

kaliza harturik,
Zuri eskerrak emanez,
bedeinkatu zuen
eta bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NIRE ODOLAREN KALIZA DA ETA,
ITUN BERRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT
BEKATUAK BARKATZEKO ISURIKO DENA.**

Egizue hau nire oroigarri.

Hau da sinesmenaren misterioa.

**Hil eta biztu zarela, Jauna,
Zu berriz etorri arte,
hau dugu, hau, berri ona!**

Horregatik, Jauna, guk,
zure Semearen nekaldi salbagarria
eta hilen artetik biztea
eta zeruratze miragarria gogoratuz,
Haren azken etorrera itxaroten dugula,
Zuri eskerrak emateko eskaintzen dizugu
opari bizi eta santu hau.

Begira, Jauna, zeure Elizaren eskaintza honi:
ikus eskaintza honetan
Zeurekin baketu gaituen Jesukristoren oparia;
iguzu, Jauna,
zeure Semearen gorputz-odolak hartzen ditugunok,
Espiritu Santuaz beterik,
Jesukristogan
gorputz bat eta espiritu bat izan gaitezela.

Berak egin gaitzala Zuretzat betiko opari,
zure aukeratuekin zerua iritsi dezagun:
lehenengo, Andre Maria, Jaungoikoaren Ama, beti Birjinarekin,
zure apostolu eta martiri dohatsuekin,
[I. santuarekin: *eguneko santuaren, nahiz zaindariaren, izena*]
eta santu guztiekin;
badakigu, hauen bitartez zure laguntza izango dugula

nonnahi eta beti.

Gu Zurekin baketzen gaituen opari hau
 izan bedi, Jauna,
 mundu guztiarentzat bake eta salbamen.
 Mundu honetako ibilaldian,
 sinesmenez eta maitasunez bete ezazu zeure Eliza:
 zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
 I. gure Artzaina,
 beste artzain eta apaiz guztiak
 eta zeurea duzun herri osoa.
 Entzun, bihotz onez,
 zeure aurrera deitu duzun familia honen otoitzak.
 Aita guztiz ona, ekarri Zeuregana
 mundu zabalean banaturik dabiltzan zeure seme-alabak.

Hildako gure senideak,
 eta mundu honetatik Zurekin adiskide
 joan diren guztiak,
 har itzazu, bihotz onez, zeure zeruan;
 guk ere sinesten dugu
 zure aintzaren zorion betea izango dugula
 betiko, haiekin batean,
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez:
 Beronen eskuz ematen dizkiozu
 ondasun guztiak munduari.

Honen bitartez, Honekin eta Honengan,
 Zuri, Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri,
 Espiritu Santuarekin batean,
 ospe eta aintza guztia
 gizaldi eta gizaldi guztietan.

Amen.

JAUNARTZE OHIKUNEA

Salbatzaileak agindu eta erakutsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

GURE AITA

**Gure Aita, zeruetan zarena:
 santu izan bedi zure izena,**

**etor bedi zure erreinua,
 egin bedi zure nahia
 zeruan bezala lurrean ere.
 Emaguzu gaur egun honetako ogia;
 barkatu gure zorrak,
 guk ere geure zordunei
 barkatzen diegunez gero;
 eta ez gu tentaldira eraman,
 baina atera gaitzazu gaitzetik.**

Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik;
 emaguzu bakea gure egunotan;
 zure errukiari esker
 bekatutik garbi bizi gaitezen
 eta estualdian sendo,
 betiko zorionaren itxaropenean,
 Jesukristo gure salbatzailea
 noiz etorriko den zain gaudela.

**Zeurea duzu erregetza,
 zeureak ospe eta indarra
 orain eta beti.**

Jesu Kristo gure Jauna,
 Zeuk esana da apostoluei:
 "Bakea uzten dizuet,
 neure bakea ematen":
 Begira zeure Elizaren sinesmenari,
 eta ez gure bekatuei;
 eta, zeure gogoa den bezala,
 emaiozu Elizari bakea,
 eman batasuna.
 Errege bizi bait zara
 gizaldi eta gizaldietan.

Amen.

Jaunaren bakea beti zuekin.
Eta zure espirituarekin.

Emaiozue bakea elkarri.

JAUNGOIKOAREN BILDOTSA

Jaungoikoaren Bildotsa,
Zuk kentzen duzu munduko bekatua:
erruki, Jauna.

Jaungoikoaren Bildotsa,
Zuk kentzen duzu munduko bekatua:
erruki, Jauna.

Jaungoikoaren Bildotsa,
Zuk kentzen duzu munduko bekatua:
emaguzu bakea.

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
 hona, munduko bekatua kentzen duena.
 Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Jauna, ni ez naiz inor
Zu nire etxean sartzeko,
baina esazu hitz bat,
eta sendatuko naiz.

Kristoren gorputza.
Amen.

JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA

...
Amen.

BUKAERAKO OHIKUNEA

Jauna zuekin.
Eta zure espirituarekin.

Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak:
 Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak.
Amen.

Zoazte Jaunaren bakean.
Eskerrak Jainkoari.

